

REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SOCIEDAD ANONIMA DEPORTIVA
AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

“Real Sociedad de Fútbol, SAD” sozietatearen (aurrerantzean “Sozietatea”) Administrazio Kontseiluak 2024ko azaroaren 4ean hartutako erabakiaren arabera, Akziodunen Ohiko Batzar Nagusia deitzen da, Kursaal Biltzar Jauregian, Zurriola hiribidea 1, PK 20.002, Donostia-San Sebastian, datorren 2024ko abenduaren 9an, 19:00etan lehen deialdian, eta, baldin badagokio, 2024ko abenduaren 10ean, bigarren deialdian, ordu eta leku berean, akziodunek ondoren zehazten den gai zerrendako gaiak aztertu eta onartu ditzaten. Ohiko Batzar Nagusia aurrez aurre baino ez da egingo, lehen adierazitako baldintzetan.

GAI ZERRENDA

Lehena.- 2024ko ekainaren 30ean itxitako ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak (balantzea, galdu-irabazien kontua, memoria, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria) eta Kudeaketa-Txostena aztertu eta, hala badagokio, onartzea, baita ekitaldi horretako emaitza aplikatzeko proposamena ere.

Bigarrena.- 2024ko uztailaren 1etik 2025ko ekainaren 30era arteko ekitaldi ekonomikoari dagozkion aurrekontua aztertzea eta, baldin badagokio, onartzea.

Hirugarrena.- Informazio ez-finantzarioaren txostena aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.

Laugarrena.- Kontu-auditoreak izendatzea.

Bosgarrena.- Administrazio Kontseiluko kideen kopurua egokitzea.

Seigarrena.- Administrazio Kontseiluari baimena ematea Batzarrean hartzen diren erabakiak interpretatu, zuzendu, osatu, gauzatu eta garatzeko, baita Batzarretik jasotzen dituen ahalmenak ordeztzeko, eta erabaki horiek tresna publikora jasotzeko ahalmenak emateko.

Zazpigarrena.- Galde-eskeak.

Administrazio Kontseilua Kapital Sozietateen Legearen 203. artikuluan eta Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduaren 101. artikuluan eta hurrengoetan ematen dioten eskubideaz baliatu da eta, horrenbestez, akta jasoko da notarioaren esku hartzarekin. 2016ko ekainaren 15eko BORMEren erregistroko inskripzioa dela eta –252241 zenbakia–, Batzar Nagusiaren iragarpena webgune korporatiboaren bitartez egiten da.



Gai zerrendako lehen, bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez, eta Kapital Sozietateen Legearen 272. artikuluan xedatutakoaren arabera, edozein akziodunek eskuratu ditzake, doan eta berehala, Batzarrean aztertu eta, baldin badagokio, onartu behar diren dokumentuak, hau da, 2024ko ekainaren 30ean itxitako ekitaldiko Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostenarekin batera, eta Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko txostena, ekitaldiari buruz Kontu Auditoreek egindako Txostena eta 2024ko uztailaren 1etik 2025ko ekainaren 30era arteko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontua.

Donostia-San Sebastianen, 2024ko azaroaren 8an



Administrazio Kontseilutik,

lehendakaria, Jokin Aperribay Bedialauneta jauna

IRAGARKI OSAGARRIA REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SOCIEDAD ANONIMA DEPORTIVA-REN OHIKO AKZIODUNEN BATZARRAREN DEIALDIARI DAGOKIONEZ

Real Sociedad de Fútbol, Sociedad Anonima Deportivaren Akziodunen Ohiko Batzar Nagusia dela eta, zeina datorren 2024ko abenduaren 9an egingo baita, 19:00etan, lehen deialdian, eta ordu eta leku berean 2024ko abenduaren 10ean, bigarren deialdian, jakinarazten da Realak Ohiko Batzar Nagusiaren deialdia hasieran jakinarazitako baldintzetan mantentzen duela (parte hartzea eta eskubideez baliatzea presentzialki), ondoren adierazten diren zehaztapenekin:

Deialdiaren iragarkia: Estatutu Sozialen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, Akziodunen Batzar Nagusiaren deialdi hau Sozietatearen webgune korporatiboan argitaratuko da, gutxienez hori egiteko jarritako data baino hilabete lehenago, Kapital Sozietateen Legearen 176. artikuluan xedatutakoa betez.

Deialdiaren osagarria: Gutxienez kapital sozialaren ehuneko bost ordezkatzan duten akziodunek eskatu ahal izango dute Akziodunen Batzar Nagusiaren deialdi honi osagarri bat argitaratzeko, gai zerrendan puntu bat edo batzuk sartuz. Eskubide horretaz baliatzeko jakinarazpen fede emailea egin beharko da, zeina sozietatearen egoitzan jaso beharko baita, deialdia argitaratu eta hurrengo bost egunen barruan.

Parte Hartze eta Ordezkaritza Txartela: Akziodunek Batzar Nagusian presentzialki parte hartu edo ordezkari delegatu ahal izateko, Parte Hartze, Ordezkaritza eta Boto Txartela jasoko dute Sozietatetik, posta arruntez.

Estatutu Sozialen 17. artikularekin bat eginda, Batzar Nagusietara pertsonalki agertu ahal izango dira bost egun lehenago gutxienez Sozietatearen Akzio Izendunen Erregistroan beren izenean gutxienez 5 akzio inskribaturik dituztela egiaztatzen duten akziodunak.

Batzar Nagusietara joateko aurreko paragrafoan eskatzen den gutxienekoa baino akzio kopuru txikiagoa duten titularrak batu ahalko dira eskatzen den gutxienekoa iritsi arte.

Ordezkaritza: Batzar Nagusian izateko eskubidea duen akziodun orok eskubidea izango du, beste pertsona adinez nagusi baten bidez, bertan ordezkaria izateko, nahiz eta pertsona hori akzioduna izan ez. Ordezkaritza hori lehen deialdian zein, baldin badagokio, bigarrenaren aplikatu ahal izango da.

Beste pertsona batengan delegatzen bada, delegazio horrekin jarduteko modua tradizionalki egin izan den bera izango da, hau da, bertaratze, ordezkari eta boto txartela behar bezala beteta emango da, ordezkari ematen zaion pertsonaren ordezkari dagokion atalean.

Salbuespen gisa, bertaratzeko eskubidea akzioen baturaren ondorioz lortzen denean, batutako akziodunetako edonork hartuko du ordezkari. Ordezkaritza idatziz eta Batzar bakoitzerako bereziki eman beharko da.



Akziodun titularra Akziodunen Batzar Nagusira fisikoki joaten bada, delegazio oro baliogabetzen da.

Beste akziodun baten edo akziodun talde baten ordezkari izendatu ahal izateko, eta, horrela, dagozkion eskubideak aurrez aurre gauzatu ahal izateko, ordezkatuak gutxienez bost akzioren edo gehiagoren titular den akziodun bati dagozkion delegazioak izan beharko ditu.

Batzar Nagusia zehar bozkatzea:

Batzar Nagusia egiten den lekuan fisikoki egin beharreko bozketa tradizionalki antolatutako prozesuaren arabera egingo da.

Dokumentazio eskuragarria: Kapital Sozietateen Legearen 272.2 artikulua arabera, edozein bazkidek eskuratu ahal izango ditu Sozietatearengandik, berehala eta doan, Batzarrean onartzeko aurkeztuko diren dokumentuak, baita, hala badagokio, kudeaketa txostena, kontu auditorearen txostena eta Informazio Ez-Finantzarioaren Egoera Orria ere.

Jasoarazten da Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiaren inguruko aurreko agiriak Sozietatearen web korporatiboan (www.realsociedad.eus) kontsultatu daitezkeela, akziodunei zuzendutako atalean.

Informazio eskubidea: Akziodunak informaziorako eskubideaz baliatu ahal izango dira, Kapital Sozietateen Legearen 197. artikulua eta estatutu sozialen arabera. Zehazki, Batzarra egiteko aurreikusitako baino zazpi egun lehenago arte, akziodunek administratzaileei eskatu ahal izango dizkiete beharrezkotzat dituzten informazioak edo azalpenak gai zerrendako gaietara buruz, edo idatziz formulatu ahal izango dituzte egokitzat jotzen dituzten galderak.

Notarioaren presentzia: Kapital Sozietateen Legearen 203. artikulua arabera, jakinarazten da administratzaileek erabaki dutela Notarioa Batzarren akta egitera etor dadila galdatzea.

Akziodunaren arreta: edozein zalantza argitzeko, zure esanetara gaituzu Klubaren bulegoetan eta akziodunak@realsociedad.eus helbidean eta 943462833 telefono zenbakian.

Batzar Nagusia egitea: Halaber, akziodun jaun-andreei jakinarazten zaie aurreikustekoa dela Batzarra bigarren deialdian egitea.

Donostia-San Sebastianen, 2024ko azaroaren 8an



Izpta.: Jokin Aperribay Bedialauneta jauna
Administrazio Kontseiluko lehendakaria